DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS
HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia kultura

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

# Giza Eskubideen 16. Zinemaldiak 761 film labur jaso ditu Nazioarteko Lehiaketan parte hartzeko

***Gazte Epaimahaiak 20 lan inguru baloratuko ditu. Apirilaren 8a arte, gazteek izena eman dezakete epaimahaiaren parte izateko. Hurrengo egunean, apirilaren 9an zozketa egingo da eta Zinemaldiko web orrian jakinaraziko dira hautatuta atera direnen izenak.***

Donostiako **16. Giza Eskubideen Zinemaldiak** 761 film labur jaso ditu Nazioarteko Lehiaketan parte hartzeko. Azkeneko hautaketa 20 lan ingurukoa izango da, Gazte Epaimahaiak baloratuko dituenak.

Epaimahaia **150 gazte** inguru osatzen dute, **18 eta 30 urte artekoak**, eta Nazioarteko Lehiaketan film labur onenari 3.000 euroko saria emateaz arduratuko dira. Apirilaren 8a arte, gazteek **www.zinemaetagizaeskubideak.eus** web orrian izena eman dezakete. Hurrengo egunean, apirilaren 9an zozketa egingo da.

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak elkarlanean antolatzen duten Zinemaldian saio eta bestelako jarduera guztietara **dohainik** joateaz gain, gazte epaimahaikideek Deustuko Unibertsitatean, Mondragon Unibertsitatean (Komunikazio A+udiobisualeko gradua) eta UPV/EHUko Gipuzkoako Kanpusean **kredituak** (ECTS) lortzeko aukera dute.

Gainera, behin zinemaldia amaituta, **diploma** bat jasoko dute eta Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Asteko, Victoria Eugenia Antzokiko saioetarako **bi abonamendu** emango zaizkie.  Halaber, errefuxiatu saharar kanpamentuetan egiten den Saharako Zinemaldirako (FiSahara) **bi bidaia** zozketatuko dira partaideen artean.

Aurtengo edizioa **apirilaren 20tik 27ra** izango da. Ikusleek, aurreko urteetan bezalaxe, giza eskubideen aldeko kontzientziazio eta sentsibilizazioarekin konpromisoa duten gaur egungo edota interes orokorreko gaiak jorratzen dituzten dokumentalen, pelikulen eta film laburren emanaldietara joateko aukera izango dute. Proiekzioez gain, beste hainbat jarduera antolatuko dira, besteak beste, solasaldiak, erakusketak eta lantegiak.

Iazko gazte epaimahaiak Katja Benrath zuzendutako **Watu Wote** film laburrari eman zion saria Nazioarteko Lehiaketan.

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA
FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS
HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia kultura

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

# El 16º Festival de Cine y Derechos Humanos recibe 761 cortometrajes para participar en el Concurso Internacional

***El Jurado Joven valorará una selección final de alrededor de 20 trabajos. La fecha final de inscripción para ser jurado es el 8 de abril.***

El **16º Festival de Cine y Derechos Humanos** ha recibido 761 cortos para participar en el Concurso Internacional. La selección final será de alrededor de una veintena de trabajos que valorará el Jurado Joven del Festival.

Compuesto por cerca de **150 personas** de **entre 18 y 30 años**, el jurado joven se encarga de otorgar el premio al mejor cortometraje, dotado con 3.000€. Quienes tengan interés en participar pueden inscribirse en la página web **www.cineyderechoshumanos.eus** hasta el 8 de abril. Al día siguiente, el 9 de abril, se realizará el sorteo.

El Festival, organizado por el área de Derechos Humanos del Ayuntamiento de San Sebastián y Donostia Kultura, ofrece a los miembros del jurado la oportunidad de asistir **gratuitamente** a todas las sesiones y actividades paralelas del Festival, así como la posibilidad de obtener créditos universitarios del Sistema Europeo de Transferencia y Acumulación (ECTS) para alumnado del Campus de la UPV/EHU de Gipuzkoa, Universidad de Deusto y Mondragon Unibertsitatea (grado de Comunicación Audiovisual).

Del mismo modo, una vez finalizado el Festival, además de un **diploma** acreditativo se sortean **dos viajes** a FiSahara, el Festival de Cine que se desarrolla en los campamento de personas refugiadas del Sahara, y se entregan **dos abonos** para las sesiones del Teatro Victoria Eugenia de la Semana de Cine Fantástico y de Terror de San Sebastián.

Este año el Festival se celebrará **del 20 al 27 de abril**. En esta nueva edición, el público podrá asistir al igual que en años anteriores, a las proyecciones de documentales, películas y cortometrajes comprometidos con la concienciación y sensibilización de los derechos humanos, que traten temas de actualidad o de interés general. Además de las proyecciones, también se organizan diferentes actividades paralelas, como coloquios, exposiciones y talleres. Las temáticas que tratan los trabajos audiovisuales son muy variadas, al igual que su procedencia, ya que se envían desde los cinco continentes.

En la pasada edición el Jurado Joven otorgó el premio a mejor cortometraje a **Watu Wote**, de Katja Benrath.